


2. IBILBIDEA

BERROIA

Irteera-puntua	Mendatako Harrera-Puntua
Helmuga-puntua	Mendatako Harrera-Puntua
Ibilbidea	Mendata – BI 3222 Errepidea – Albiz – Urrutxu - Mendigane – Berroia – Zelaietagana - Elosua – Ajangiz – Marmiz - Mendata
Distantzia (km)	18,9
Pilatutako desnibel positiboa (m)	340
Gutxi gorabeherako iraupena	1 h 30 min
Bizikletentzako bidea	% 100
Norantza	Norantza bakarra % 100
Zoru-mota	Bidea % 30, Errepidea % 70
Zailtasun-maila	Handia
Bestelako informazioa	<p>Mendatako harrera-puntutik atera eta BI-3222 errepidetik, apurka-apurka Urrutxuko auzora helduko gara. Lehenago, Albizko auzotik igaroko gara.</p> <p>Urrutxura heldutakoan, mendira igotzen duen zementuzko errepidea jaiotzen da. Metro batzuk aurrerago pista hau pinuen arteko bide bihurtzen da.</p> <p>Bide honen bidegurutzei eta adarkadurei erreparatu beharko diegu, nahiz eta gu geu isurialdeen banalerroaren goialdetik ibiliko garen. Jaitsiera zailaren ostean, Berroiako auzo txikira helduko gara. Berton, eskumarantz hartuko dugu eta pistan sartuko gara berriro. Euri-sasoian sortzen diren erreiez eta erreka-ibarrez betetako pistatik jaitsiera zaila eta jarraia egin eta gero Elosu etxera helduko gara. Hortik aurrera asfaltua dago berriro.</p> <p>Ibilbide osoan zehar marka horiak jarraituko ditugu.</p> <p>Errepidera heldutakoan, aurrerantz jarraituko dugu asfaltatutako bideetatik Ajangizko udalerrian zehar joateko. Ajangizen gaudenean, eskumarantz egingo dugu, apurka-apurka igoten joateko Marmizko auzora (BI-3241) eta azkenean Mendatara (BI-3222) helduko gara, ibilbidearen abiapuntura hain zuzen ere.</p>



IBILBIDE 2 - BERROIA

IBILBIDEAREN MAPA


IRTEERA PUNTUA ETA HELMUGA PUNTUA: MENDATAKO HARRERA PUNTUA (BIZKAIA).
IBILBIDEA: MENDATA - BI3222 ERREPIDEA - ALBIZ - URRUTXU - MENDIGANE - BERROIA - ZELAIETAGANA - ELOSUA - AJANGIZ - MARMIZ - MENDATA.
KM: 18,9 - METATUTAKO DESNIBEL POSITIBOA: 340 M - IRAUPENA, GUTXI GORABEHERA: 1 H 30 MIN
BIZIKLETENTZAKO BIDEA: 100% - NORANZKO BAKARRA: 100%
ZORU MOTA: BIDEA 30% ERREPIDEA 70%
ZAILTASUN MAILA: HANDIA

MENDATAKO HARRERA PUNTUTIK ABIATU ETA, BI-3222 ERREPIDETIK, URRUTXU HERRIRA IGOKO GARA ASTIRO-ASTIRO (ALBIZ HERRIA BISITATU ONDOREN).

URRUTXURA IRITSI BEZAIN LASTER, MENDIRANTZ DOAN ZEMENTUZKO PISTA BAT ABIATZEN DA. METRO BATZUK AUERRERAGO, PINUDI ARTEKO BIDE BIHURTZEN DA PISTA HORI.

KONTU HANDIA IZAN BEHARKO DUGU BIDEGURUTZEEKIN ETA ADARREKIN. DENA DELA, ISURIALDEEN BANALERROAREN GOIALDETIK IBILIKO GARA BETI. JAITSIERA ZAIL BATEN ONDOREN, BERROIA AUZO TXIKIRA IRITSIKO GARA, ETA ESKUINETARA EGINGO DUGU BESTE PISTA BAT HARTZEKO. BERTATIK, JAITSIERA ZAILA ETA LUZEA EGIN ONDOREN (EURI GARAIA GURPIL-ARRASTOAK ETA UR IBILGUAK IZATEN DIRA), ETXEBIZITZA BATERA IRITSIKO GARA (ELOSU). BERTAN, ZORUA ASFALTOZKOA DA.

IBILBIDEAN ZEHAR, MARKA HORIEI JARRAITUKO DIEGU BETI. ERREPIDERA IRITSI ONDOREN, AUERRERA JARRAITU ETA AJANGIZ HERRIA ZEHARKATUKO DUGU BIDE ASFALTATUETATIK. AJANGIZTIK ESKUINETARA EGINGO DUGU ETA, GORANTZ BETI, MARMIZ HERRIRA IRITSIKO GARA (BI-3241), ETA, AZKENIK, MENDATARA (BI-3222), GURE IBILBIDEAREN IRTEERA PUNTURA, ALEGIA.



EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO PLAKAK ○ BU15
EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO ZUTOINEAK □ BU192

GOGOAN IZAN - ERABILBI KASKOA - ERRESPETATU OINEZKOEN LEHENTASUNA ETA ZIRKULAZIO ARAU OROKORRAK - ERRESPETATU IBILBIDEEN SEINALEAK ETA ZIRKULAZIO NORANZKOA - EUSKADIKO BTT ZENTROAK EZ DIRA ZIRKULAZIOEN OKERREKO ERABILERAREN ERANTZULE IZANGO, EZ ETA ERABILTZAILIEN ZUHURTZIAGABEKERIEKIN ERANTZULE ERE - GALDUZ GERO, GOGOAN IZAN SEINALEAK ZENBAKI BATEKIN KODETUTA DAUDELA. DEITU HARRERA PUNTURA ETA/EDO BESTE LAGUNTZA ZERBITZU BATERA, ETA JAKINARAZI ZENBAKIA - TXIRRIINDULARITZA FEDERAZIOAREN BITARTEZ FEDERAZIOAREN LIZENTZIA ATERATZEA **GOMENDATZEN DUGU** (ESKATU INFORMAZIOA EUSKADIKO BTT ZENTROKO LANGILEEI).
EZ AHAZTU - SEINALERIK EZ BADAGO, JARRAITU LEHENTASUNEN BIDETIK - BAKARRIK IBILI BEHAR BADUZU, ADIERAZI ZER IBILBIDE EGINGO DUZUN HARRERA PUNTUAN - IRTEEN AURRETIK, AZTERTU BIZIKLETAREN EGOERA ETA JASO DENBORARI ETA IBILBIDEARI BURUZKO INFORMAZIOA - EZ AHAZTU URA, KONPONKETA OSAGARRIAK ETA SAKELAKO TELEFONOA ERAMAN BEHAR DITUZULA - EZ GUTXIETSI IBILBIDEEN ZAILTASUN TEKNIKOAK, ETA AUKERATU IBILBIDEAK ZURE GAITASUN TEKNIKOAREN ETA FISIKOAREN ARABERA.
KONTUZ - KONTUAN HARTU IBILBIDEETAKO BASO LANAK ETA NEKAZARITZA LANAK - KONTU HANDIA IZAN EHIZA GARAIA - ERRESPETATU INGURUA - ERRESPETATU ITXITURAK, ETA ITXI BERRIZ IGARO ONDOREN. ERRESPETATU ZONA PRIBATUAK ETA KULTURA ETA ONDARE INGURUNEAK - ERRESPETATU NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA ETA BASO JARDUERAK, INGURUKO BIZTANLE ASKOREN LANBIDEA BAITA - ERRESPETATU INGURUMENA, INGURUKO BIZTANLEAK ETA ANIMALIAK. EZ EGIN ZARATARIK. ERRESPETATU INGURUKO LASAITASUNA, HEGAZTIEK HABIAK EGITEN DITUZTEN LEKUETAN BEREZIKI - EZ BOTA PIZTUTA DAGOEN ZIGARROKINIK ETA POXPOLURIK; AXOLAGABEKERIA HANDIA DA, ETA OSO ARRISKUSUA - EZ BOTA ZABORRIK MENDIRA. UTZI JOLAS AREETAN EDO HERRIETAN DAUDEN EDUKIONTZIETAN.
GOZATU NATURAZ ZARATARIK ETA PRESARIK GABE.

IBILBIDE 2 - BERROIA

